

289. alea - 2023ko azaroa
Debako herri aldizkaria

Zuhertza Herri deba euskara
elkartea

Berriketan



IÑAKI GARITAONANDIA, GARI

Egon nahi duen lekuan dagoen musikaria



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
i @adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behea. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

LK
Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolkhome@gmail.com

Torrealday

AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARRIOA - 94 683 29 75
EBILIA - 94 37 44 35
Eta beste herri botzuetan.
www.torrealday.es

Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologia

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com
Tel: 685 703 843



BERRIKETAN

289

2023ko azaroa

Azaleko irudiaren egilea:
Gari - Artxiboa

AURKIBIDEA



8 KOLABORAZIOA

Debako Gazte
Asanbladak
23 urte
bete ditu aurtin



10 ELKARRIZKETA

Amaitu berri den surf
denboraldia
errepasatu du Ugaitz
Zenarrutzabeitiak



12 ALBISTEAK

Lantalde berri batek
hartu du Debako Odol
Emaile Elkartearen
gidaritzia



13 GEHIGARRIA

58. Durangoko Azoka
"Fantasia izango DA!"
abendua 6tik 10era
(DKTren gehigarria)



30 ERREPORTAJEA

Euskararenerabilera
sustatzeko helburuz
antolatutako hamaika
ekimen Euskeraz Bageran



36 AGENDA

Datozen asteotan
egingo diren jarduerak
eta ekimenak jaso
ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
elkartea

Berriketan

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza Euskara Elkartea

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@zuhatzza.com

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bediauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/200

ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Pozik, baina areto egoki baten faltan

Bigarren aldiz, eta azkena izango ez delakoan, egin dugu aurten Fokupean, azaroko lehen bi asteburuetan Deba antzerkiz jantzi duen festibala. Giro ederra izan dugu eta, oro har, pozik gaude emaitzarekin.

Antzezlanen aukeraketan asmatu dela uste dugu.

Areto aproposik ez dugula kontuan hartuta, aktore asko eta azpiegitura gehiegi behar ez dituzten piezak ekartzea erabaki zen. Mota askotako antzezlanak (umorezkoak eta *ganberroak*, kritikoak, hunkigarriak...) izan ditugu, guztiak bikainak. Tailer bat eta ikastaro bat ere egin ditugu, eta nabarmentzekoa da horietan sortutako giro hurbila. Era berean, gogoangarria izan zen azken larunbatekoa, beste behin ere herritarrok elkarren artean saretu eta eszenatokia eta kaleak hartu genituelako, antzerkiz zein abestiz.

Espazioa protagonista izan dugu aurten ere, eta bigarren asteburuan azken orduko leku aldaketa bat egin behar izan genuen, ekintzak jubilatuen egoitzatik Ispiluen gelara eramanda. Antolatzaileok ez genituen ezustekoak eta oztopoak behar bezala aurreikusi. Jubilatuen egoitza aukeratu genuen, haren edukiera eta kokalekua kontuan izanik eta antzerkia helduenei eta espazio berri batera eramateko asmotan, baina zentroko eguneroko funtzionamendua eta antzerkien prestaketa lanak bateraezinak izan dira une batzuetan. Horregatik egin ziren Ispiluen gelan azken asteburuko emanaldiak.

Ispiluen gela leku zoragarria da eta, oraingoz, hurrengo emanaldiak bertan egiteko asmoa dugu. Hala ere, argi dago ikusleentzat zein antolatzaileentzat bere mugak dituela aretoak (muntaiak eta desmuntatze-lanak, edukiera txikia, ikusgarritasun eskasa, zarata...). Ezinbestekoa iruditzen zaigu beste behin ere antzerki areto baten beharra aldarrikatzea. Herri osoarentzat eta kultur eragile askorentzat aproposa izango den areto bat lortze aldera, GOAZek Kultur Mahaia deituko du datozen egunetan, ea denon artean konponbide bat topa dezakegun.

GOAZ Antzerki Taldea

Zatoz abenduaren 12ko bilera irekira!

Abenduaren 24an, eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi izango ditugu berriz ere bisitan herrian, euren astoaren konpainian. Eta, urteroko hitzordu herrikoia prestatzeko helburuz, lantaldea osatu dugu azken asteotan. Taldea irekia da, noski, eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera.

Azaroan lehenengo bilera egin ondoren, laster egingo dugu bigarren batzar bat, antolakuntza lanei buru-belarri heltzeko. Eta, horregatik, lerro hauen bitartez, boluntarioen taldera batzeko eta abenduaren 12an, 18:00etan, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan (Ifar kalea 12) egingo dugun bilera irekira etortzeko gonbidapena egin nahi dizuegu guztioi. Denok izango zarete ongi etorriak, bai norbanako gisa zein talde gisa, eta benetan eskertuko genuke zuen parte-hartzea. Gure ustez argi baitago: zenbat eta lagun gehiago izan, orduan eta ederragoa izango da auzolanaren emaitza.

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea





ARANTZA IRIONDO

Lexikoa

Aberatsa da euskarak duen lexikoa, beste kontu bat da zenbaterainoko ezagutza dugun eta nola eta zenbat hitz erabiltzen dugun. Azken asteetan ikasleekin hainbat joko, ariketa, zerrenda... egin ditut ezagutzen duten hitz kopurua handitzeko helburuarekin. Ezagutu, bai, ondo irakurri duzue; ze erabilera beste kontu bat da. Biraoen zerrendak irakurri genituen, non beste batzuen artean hauexek agertu ziren: "memeloa", "zirina", "babalorea", "eulimandoa", "lapazorria", "melokotoia" eta, niri ikaragarri gustatu zitzaidana, "gaizki egindako mondejua". Noski, ikasleei ez zien inolako graziarik egin; nik, berriz, kristoren barreak egin nituen eta "altxortegian" gorde. Inguruan ditugun animalia eta landareekin ere antzera jokatu nuen, baina oraingoan haiei eskatu nien zerrendak egiteko; aharia, akerra, behorra... bereizteko edo zein den arra edo zein emea esateko lanak izan zituzten. Nola ez, zerrendan ez zituzten horiek aipatu ere egin. Pentsatu nahi dut testu hau irakurtzen ari zaren horrek ez duela inolako arazorik izan aipatutako hitzen esanahia jakiteko.

Baten batek esango du "modaz pasatutako" edo "beharrezkoak ez diren" hitzak direla esandakoak, baina horien ordainak gaztelaniaz erabiliko dituela ziur nago. "Modernoak" zaretzen horientzat, orain botako ditudanek ea ze esanahi duten asmatzen duzuen: *ez dut SUHIBERRIK ez ERRAIBERRIK, baina bai LARRUNA*. Eragin buruari eta ezinean bazabiltzate, idatzi *Berriketan*-era.

"Baten batek esango du 'modaz pasatutako' edo 'beharrezkoak ez diren' hitzak direla esandakoak, baina horien ordainak gaztelaniaz erabiliko dituela ziur nago"



TaxiAlain Deba


LIZ.-ZK.: 3

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.taxideba.eus


MAIEDER Eider Sampayo
hortz klinika Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia
 Periodontzia · Endodontzia
 Estetika eta zuriketak
 Protesiak · Odontopediatria
 Azido hialuronikoa
 Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

Zarautz
 Kale Nagusia 9-1
 943 13 32 69
 722 81 56 60
 dental@maieder.com
 www.maieder.com



1930eko hamarkada

Gure Etxetxo

Ziurrenik, 1930ean egindako argazkia da. Ez dakigu nortzuk diren Gure Etxetxo txaletaren aurrean kamerari begira ageri direnak, baina seguruenik Ignacio Linazasoro eta bere familiakoak izango dira, Ifarkale kalearen amaieran, Hondartza kalearekin bat egiten duen tokian, kokatutako txaletaren jabeak, hain zuzen.

Linazasorotarrek udako bizileku zuten txalet bikaina Manuel de Cardenas arkitektoak eraiki zuen eta bizitza laburra izan zuen. 1932ko azaroan izandako euriteen ondorioz, azaroaren 11n, San Martin egunean, itsasgorarekin batera, mendiaren hegala behera etorri zen, txalet ederra arrastaka eramanez eta eraikina eraitsiz.

Alex Turrillas Aranzeta


Informatika
 Tresneria
 informatikoa

Elektronika
 Osagai
 elektronikoa

Informatika JLC Elektronika
 Maxpe kalea, 7 - beheka | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
 Faxa: 943 19 18 36
 Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com


atari
 INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com


ieraenea
 eskudena

"mailo ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
 Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com


LAMARIANO
 Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
 943 19 12 52



LANDER ARANBERRI

Pribilegioak?

Zutabe hau argitaratzen denerako, Euskal Herrian greba feministaren balizko arrakasta eta, nola ez, Osakidetza edo hezkuntza publikoaren gaineko eztabaidak izango dira hizpide. Urruneko begiradaren distorsioarekin asmatu baldin badut behintzat, noski.

Txilen nabil, Irarrazabal abizena aristokraziaren seinale den herrialde honetan. Esan gabe doa ez naizela preseski auzorik txiroenean bizi; pribilegiatua naiz hemen. Baina, paradoxikoki, pribilegiatu bihurtzen nautenak Deban jasotako hezkuntza publikoa, osasun sistema publikoa edo zaintza lanak dira, hemen utopia hutsa direnak. Ordaindu ditzakeen gutxiengoak sistema pribatura hanka egiten du, gehiengoarentzat ogi-papur ziztrin batzuk geratzen diren bitartean. Askatasuna (*sic*) deitzen diote. Neoliberalismoa, puri-purian.

Ez dut eskubideen defentsaren aurka egiteko inolako asmorik. Beharrak eskubidea sortzen duela uste dutenetakoa izan naiz beti. Baina jasotzen ditudan albisteekin batera sumatu dudana giro negatiboak kezkatzen nau. Baior nintzen 2020. urtean pandemiak irakatsitako kolektibitatearen eta epe luzera begiratzearen beharraz, eta sinetsita nago beharrak gure barnean dirauela. Lortu ditugun eskubideak Txilen pribilegio baldin badira, jada irabazitako borrokkak direlako da; atzera begiratu eta harrotasunez hartzekoak, aurrera egiteko pizgailu. Violeta Parrak kantatuko lukeen moduan, "*se va enredando, enredando, como en el muro la hiedra. Y va brotando, brotando, como el musguito en la piedra. Como el musguito en la piedra, ay sí, sí, sí...*" ("korapilatuz doa, korapilatuz, huntza horman bezala. Eta ernetzen doa, ernetzen, goroldioa harrian bezala. Goroldioa harrian bezala, ai bai, bai, bai...").

"Paradoxikoki, pribilegiatu bihurtzen nautenak Deban jasotako hezkuntza publikoa, osasun sistema publikoa edo zaintza lanak dira, hemen (Txilen) utopia hutsa direnak"



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfñoa.: 943 191 095

Ez laga sua itzaltzen!

DEBAKO GAZTE ASANBLADA, XXIII. URTEMUGAN



Urtemugako ospakizunei hasiera emateko, azaroaren 11n Debako Gazte Asanbladaren historiaren parte garen eta izan diren kideak batu ginen; oraindik ere gazteak batzuk, eta jadanik ez hain gazte beste batzuk. Urteotan hamaika izan gara Gaztetxea gure etxe bihurtu dugun neska-mutilak, eta beste hainbeste izan dira, asteroko lan eta konpromisoari eutsiz, herrian edota begirada bertatik kanpo jarrita aurrera eraman ditugun ekintza eta aldarrikapenak. Debako gazteon antolakuntzarako zoru irmo eta emankorra izan da gazte asanblada 23 urte hauetan.

Lehenengo kideek Iturkalen okupatutako Gaztetxean izandako sutearen ondoren, Osioko *matadero* zaharrean berpiztu zen suaren bueltan dihardugu batzuk oraindik ere. Gaztetxea ostiral gauero txinparta gorritz berotzen jarraitzen dugu, suabe-suabe batzuetan, indartsuago beste zenbaitetan, argia gertuago edo urrunago proiektatuz. Baina 23 urte hauetan ez gara behin ere gelditu: behin piztu zuten suaren garrak ez dira oraindik itzali.

Kidez kide eta belaunaldiz belaunaldi

Asanbladaz asanblada joan gara eraikitzen adin ezberdineko kideon arteko zubiak eta azaroaren 11 izan zen horren erakusle. Gutako bakoitzak zerbait ikasi du aurrekoengandik, kidez kide eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako irakaspen eta anekdoten bitartez.

Manexek eta Koldok ez zuten sekula bilera-mahai batean topo egin, baina, etxean, Manexek ur pixka bat gehitzen dio amaitzearen tomate-potoari, barruan geratzen zaiona hobeto aprobetxatzeko, eta horri "San-tixorena egitea" deitzen dio, hala entzun baitu beti


Gaztetxeko sukaldean. Bazkalosteko tertulian aipatu genituen halakoak, eta beste hainbat. Kafea eskuan, 23 urteotan bakoitzak Gaztetxean bizi eta ikasitakoak entzuten aritu ginen, banan-banan. Bata egun luzez ibili zen *matadero* zaharreko paretak konpontzen, besteak bigarren pisu bat eraikitzeko ideia izan zuen, horrek aretoko murala margotu zuen, hark bazterreko eszenatoki biribila muntatu... Bi hamarkada baino gehiago daramatzagu orain Debako Gaztetxea den hori kolektiboki adreiluz adreilu eraikitzen. Behin kide ohiek defendatu zutena jaso eta gure egin dugu, eta ziur gaude haiek ere izan dutela zer ikasia gaur egungo gazte asanblada den honetatik. Gure jarduna eurena ere bada.

Urtemugako ospakizunak hasi besterik ez dira egin. Izan ere, azaroaren 24-an, 18:00etan, Niala magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute txikienek Gaztetxean, txokolatada eta guzti. Eta abenduaren 2an kontzertu gaua izango dugu urteurrena biribiltzeko.

Bestalde, azaroan *Larunbat Komunistak* estreinatu ditugu; hilabetero egingo da ekimena, Gaztetxeko lanegun eta formakuntza saioak berreskuratuz. Eta abenduaren 30ean berriz bilduko gara, denon artean Gaztetxea atondu eta herrian Gerra Zibilean gertatutakoen berri izateko. Gainera, Gaztetxeko liburutegi zerbitzuari esker, aurrerantzean Mendata BHI institutuko irakur-liburuak maileguan hartzeko aukera izango da, herriko ikasle guztientzat eskuragarri egon daitezten. Eta, ez hori bakarrik, beste hainbat ideia ere badauzkagu eta buruan...

Borroka eginez eta ilusioz, gure aurrekoen lekukoak hartu dugu eta guk ondorengoei pasako diegu, bai datozen 23 urteetan, bai ondoren. Ez laga sua itzaltzen!

Zaintzarako eskubidearen alde kaleak hartzeko deia egin dute



2018ko eta 2019ko grebekin hasitako bideari jarraikiz, greba feminista orokorra egingo da estreinakoz azaroaren 30ean. Euskal Herriko mugimendu feministako kideek jakitera eman dutenez, zaintzaren krisia mahai gainean jartzea eta zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde kalera irtetea izango da helburua. Aldi berean, "beste hamaika aldari" ere jarri nahi dituzte erdigunean: "Denon bizitzak erdigunera ekarriko dituen zaintza eskubide kolektiboa borrokatzea goaz".

Deitzaileek ohartarazi dute mobilizazioak ez duela "orain arteko greben eredu bera" izango. Azaldu dutenez, ohiko grebetan sindikatuena izan ohi da gidaritza eta greba feministaren kasuan,

aldiz, mugimendu feminista ari da lidergoa eramaten. Lanuztera "denak, baita gizonezkoak ere" deituta daudela gogorarazi dute, izan ere, zaintzaren erantzukizuna eta ardura jendarte osoarena dela nabarmendu dute.

Deialdiarekin bat eginda, Deban ere hainbat ekintza iragarri ditu DIT feministak dinamizatuta sortu den greba batzordeak. Egunotan motorrak berotzen aritu ondoren, hilaren 30erako honako egitaraua aurkeztu dute: *Malen etxea. Zaintzaren esklabo* dokumentalaren proiektzioa (egun osoan, udaletxeko arkupeetan), mahai-ingurua (12:00etan), bazkaria, kafe tertulia, kantaldia kalez kale... eta, guztia biribiltzeko, manifestazioa deitu dute (19:00etan, Foruen Plazatik).

Askotariko ekintzak egingo dituzte Itziarren eta Deban, azaroaren 25aren bueltan


Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 25ean eta, egun hori oharkabean pasa ez dadin, askotariko ekintzak iragarri dituzte. Itziarren, esaterako, azaroaren 19an eman zioten hasiera Itziarko Erasoen Aurkako Taldeak, Andutz Euskal Dantzari Taldeak, Itziarko Auzo Udalak, Burugorri Martxanek eta Goimekek elkarlanean antolatutako ekintza sortari. Azaroaren 24an jarraituko dute ekintzek, genero indarkeria hizpide hartuta Burugorriko lehen solairuan 19:00etan hasiko den kafe tertuliarekin. Azaroaren 25ean, aldiz, 10:00etan eskola txikian elkartu eta era kolektiboan horma irudi bat margotzeko asmoa agertu dute. Ondoren, iluntzeko manifestazioa girotuko duen batukada herrikoien entseguarekin hasiko dira. 18:00etan, azkenik, elkarretaratzea eta manifestazioa egingo dituzte, plazatik hasita.

Deban, bestalde, egunaren testuinguruan ondutako adierazpen instituzionala kaleratu du udalak eta abenduaren 1erako Beldur Barik tokiko lehiaketaren sari banaketa ere iragarri dute; 19:30ean hasiko da ekitaldia, Ispiluen gelan.

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 


ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

“Hasierako helburua, egia esan, Euskal Herriko txapeldun izatea eta zirkuitua irabaztea zen”

UGAITZ ZENARRUTZABEITIA LAZKANO • Surflaria



14 urte besterik ez dituen arren, denboraldi bikaina osatu du Ugaitz Zenarrutzabeitia Lazkano (Deba, 2009) surflari gazteak. Hainbat txapelketatan puntako emaitzak lortu ondoren, pozik egoteko arrazoiak ditu. Besteak beste, Euskalsurf Gazte Surf Zirkuitua irabazi du gizonezkoen 14 urtez azpikoen kategorian eta, horrez gain, Espainiako Txapelketan eta Zarautz 4Teens norgehiagoka ezagunean ere onenen artean sailkatu da.

Txiki-txikitatik ibiltzen da olatuak hartzen eta ohol gainean zutitzen Ugaitz Zenarrutzabeitia Lazkano surflari gaztea. Debarrak azaldu duenez, 5 urte besterik ez zituela piztu zitzaion itsas kirol horrekiko zaletasuna. Lagun batek ohol bat utzi zion probatzeko eta esperientzia gustatu zitzaion; orduan jakin zuen horretan jarraitu nahi zuela. Hurrengo Gabonetan, gurasoek ohol bat oparitu zioten, eta ordutik olatu artean murgiltzen jarraitzen du. Gaur egun, Imanol Yeregiren eskolan dihardu ikasten, eta surfa bere bizitzako zutabe garrantzitsuenetako bat bihurtu da, txapelketa ugaritan parte hartzera iristeraino.



Ugaitz Zenarrutzabeitia olatu bat hartzen. ARKAITZ LAZKANO SANCHEZ

Euskalsurf Gazte Surf Zirkuituko txapeldun izendatu zaituzte berriki. Zer dela eta erabaki zenuen bertan parte hartzea?

Zirkuituan parte hartu dudana bigarren aldia izan da aurtengoa. Euskal Herri mailako zirkuitua delako erabaki nuen bertan lehiatzea.

Eta zer asmorekin joan zinen txapelketara?

Hasierako helburua, egia esan, Euskal Herriko txapeldun izatea eta zirkuitua irabaztea zen eta, helburu hori lortuta, oso pozik eta gustura sentitzen naiz.

Ozta-ozta gainditu duzu (35 puntuko aldearekin) Urko Zarraga bigarren sailkatua. Espero zenuen irabaztea?

Azken proban finalerako txartela lortu nuela ikusita, baneukan zirkuitua irabazteko esperantza. Proba bera irabazteko itxaropena ere banuen, baina, olatu eta eguraldi baldintza txarrak zirela medio, ez zen posible izan.

Karraspion eta La Salvajen lortutako bigarren postuak garaipena eskuratzeko erabakigarriak izan dira, ezta? Proba horietan nahiko baldintza kaskarrak izan genituen.



Surflari debarra, ohola eskuetan. ARKAITZ LAZKANO SANCHEZ

Hala ere, baldintza eskas horietara ondo egokitu nintzen eta, finalak nahi bezain ondo irten ez baziren ere, posible izan zen emaitza on bat lortzea.

Zirkuitua hiru probaz osatuta egon den arren, horietako bitan bakarrik lortu dituzu puntuak. Nolatan?

Lehenengo proba egin zen asteburu berean, kasualitatez, Aritz Aranburuk antolatzen duen Zarautz 4Teens txapelketa ere jokatzeko. Oso maila handiko txapelketa da, Espainiako Surf Zirkuiturako puntuagarria. Hasiera batean, bi probetan parte hartzeko asmoa nuen. Izan ere, Zarautzko txapelketa larunbatean hasten zen eta zirkuituko lehen proba, aldiz, igandean zen. Baina, larunbatean, biharamunean jokatzeko 4Teens txapelketaren azken fasera igarotzeko txartela lortu nuen eta, norgehiagokak duen garrantzia ikusita, bertan gelditzea aukeratu nuen.

Parte hartu duzun bi probetatik zein gustatu zaizu gehien?

La Salvajekoa, dudarik gabe. Olatu hobeak egon ziren, horma gehiagorekin. Itsasbeheran, gainera, eskuin aldetik goi-goian olatu bat altxatu zen, eta horregatik guztiatik olatu hobeak zeudela iruditu zitzaidan.

“Emaitzarik onenak, beharbada, Espainiako Txapelketan eta Zarautz 4Teens txapelketan lortu ditut; laugarren amaitu dut bietan”

Karraspion baldintza eskasagoak izan genituen. Olatua asko ixten zen eta finalean ere ez zen olatu askorik izan. **Zirkuituz kanpo lehiatzeko aukerarik izan al duzu?** Espainiako Surf Zirkuituko hainbat probatan parte hartzeko aukera ere izan dut, bai. Emaitzarik onenak, beharbada, Espainiako Txapelketan eta Zarautz 4Teens txapelketan lortu ditut; laugarren amaitu dut bietan. Bestalde, Loredon jokatuak Kantabriako Ligako proba bat ere irabazi dut.

Hastapenei begira jarrita, noiz hasi zinen surf egiten?

Lehen aldia 5 urterekin izan zen. Lagun batek bere ohola utzi zidan probatzeko eta esperientzia asko gustatu zitzaidan. Gabonetarako taula bat eskatu nien gurasoei, eta hor hasi zen guztia. Hasiera batean, Youtubeko bideoetan ikusten nuena ikasten ahalegindu nintzen, gurasoen laguntzarekin. 10 urterekin, ordea, Imanol Yeregiren Surfing Zumaia eskolan izena ematea erabaki nuen, eta oraindik ere bertan jarraitzen dut; egia esan, oso gustura nago Imanolekin, asko irakatsi dit.

Surfak entrenamendu asko eskatzen du, ezta?

Urte osoan egiten ditut entrenamenduak. Astean bitan, Imanol Yeregirekin aritzen naiz Zumaian eta gainontzeko egunetan nire kabuz entrenatzen naiz, osaba Arkaitzen eta aitonaren laguntzarekin. Uretaratzeko baldintza eskasak baldin badaude, uretatik kanpo bestelako entrenamenduren bat egiten dut, baina ahal dudan guztietan sartzen naiz uretar.

Entrenatzeko orduan, desberdintasunik nabaritzen al da urteko sasoi batetik bestera?

Bai, noski. Udaran ura epelagoa egoten bada ere, neguan askoz olatu hobeak, handiagoak eta indartsuagoak egoten dira.

Noiz eta nola helduko diozu denboraldiari?

Urtarrilean hasiko da denboraldi berria. Berez, 16 urtez azpikoen kategorian aritzea dagokit, baina, zirkuituan kategoria hori ez dagoenez, nahitaez 18 urtez azpikoen mailan aritu beharko naiz. Kategoria horretan ahal dudan mailarik onena ematen saiatuko naiz eta aurrez egindako lanaren fruituak emaitzetan igartzea espero dut.

Odol Emaile Elkartearen gidaritzza hartu duen taldea aurkeztuko dute abenduaren 3an



Odol emate kopuru handiak egin dituztenei eskerrak emateko ekitaldia berezia izango da aurten. Jabier Zubiaurre eta Arantza Iriondo senar-emazteek duela 36 urte hartu zuten Debako Odol Emaile Elkartearen gidaritzza eta, Zubiaurre hil ondoren, Iriondok hartu zuen taldearen ardura, Alaitz Zubiaurre alabak, Martina Zubizarretak, Mari Karmen Lazkanok eta hainbat senidek eta kuadrillako kidek lagunduta.

Orain, taldeak atseden hartzea erabaki du eta, azken urteotan alboan izandako en laguntza eskertzeko ez ezik, lekukoa hartu duen lantalde berria aurkezteko ere baliatuko du abenduaren 3an 11:30ean udaletxean egingo den ekitaldia.

Ametz eta Ihintz Urkirik, Leire Agirrebeñak, Mirari Oñederrak, Kristina Etxeberriak eta Edurne Uriak hartu dute azken urteotan "era nekazezinean" lanean aritu diren lekukoa. Jada hasita daude jardunean eta "pozik" azaldu da orain artean elkartearen ordezkari nagusi izan den Arantza Iriondo, taldearen etorkizuna "esku onetan eta bermatuta" ikusten duelako.

Ohi bezala, odol emaille handien "ezinbesteko lana eta konpromisoa" ere aitortuko dute. Aurten zortzi lagunek jasoko dituzte intsigniak eta esker onak: odola 25 aldiz ematearren, Paul Garciak eta Josu Tapiak; 40 aldiz ematearren, Ane Miren Egidazuk; 50 aldiz ematearren, Ander Martinezek; 60 aldiz ematearren, Miren Itziar Robledok; eta, 75 ateraldirekin, Juan Jose Aguirregabiria, Juanan Izaguirre eta Jose Alberto Lazcanok.

Palestinari elkartasuna adierazteko eta Gazaren kontrako erasoaldia salatzeako mobilizazio jendetsua egin zen Foruen Plazan

Gernika-Palestina herri deialdiarekin bat eginez, Deban ere ehundik gora lagun elkartu ziren Gazako sarraskia geratzeko eskatzeko eta konponbide politiko baten alde pasa den azaroaren 7an, iluntzean, Foruen Plazan.

Bertan gogorarazi zuten bezala, "Palestinako egoera, 10.000 hildako baino gehiagorekin (horietatik erdia haurrak), oso larria da. Ez dirudi une honetan nagusi den gerra gero eta bortitzagoa epe laburrean amaituko denik. Israelgo Gobernuak Gazan lurreko okupazioa hasteko hartu duen erabakiak itzulera zaileko amildegri baten ertzean jarriko du gatazka. Ezin gara izan Israelen Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko gobernuen konplizitatearekin egindako herri palestinarraren genozidioaren eguneroko ikusle hutsak".

Horrekin batera, ondoko aldarrikapenak egin zituzten: berehalako su-etena, eraso guztien amaiera eta zibilien bizia eta segurtasuna bermatzea; Palestinako lurraldearen gaineko mehatxuarekin bukatzea, bai eta laguntza humanitarioaren sarrera ahalbidetzea ere;



palestinarrak bakean bizitzeko eskubidea; elkarrizketa prozesu bat abiatzea, bake justu egonkor eta iraunkorra helburu duena eta okupazioari amaiera emango diona. Eta eskatutako hori berehala betetzen ez bada, nazioartean ondoko neurriak hartzea ere eskatu zuten: Israeli boikota, desinbertsioa eta zigorrak ezartzea.

DA!

58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren 6tik 10era

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

IBAIZABAL

IBAIZABAL

IBAIZABAL

**Errealitate bihurtu
den fantasia**

Badator 58. Durangoko Azoka

ABENDUAREN 6TIK 10ERA BITARTEAN IZANGO DA, 'FANTASIA DA!' LELOAREKIN

Euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua den Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era bitartean izango ditu atek zabalik aruten.

Fantasia DA! leloarekin dator, Nerea Mujika Gerediagako gerenteak esplikatu duen moduan: "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarra, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren barbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa".

Dagoeneko 58 urte igaro dira azokaren hasierako bultzatzaileen amets hartatik, "fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua dugu".

Mujikak gaineratutakoaren arabera, "Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsu eta aberatsa izatea, horixe da gure fantasia".

Mundu propioa sortu

Fantasia horren irudi eta isla, Ximon Agirre artistak sortutako kartelak ilustratuko du azoka, hiru dimentsioko irudi sakona baliatuz, errealitate birtualean landua. Kolore alai eta saturatuekin, Durangoko Azokaren festa izaera bistaratzeko helburua izan du. "Kartelaren ideia nagusia mundu propio bat sortzea izan da, azokaren elementuak (liburuak, musika, bideogintza, teknologia berriak...) pertsonaia fantastikoenkin uztartuz", esplikatu du Agirrekerak.



Bisitari ugari izan zen iazko Durangoko Azokan. DURANGOKO AZOKA

Ikasle Goiza

Azokak abenduaren 6an atek zabaldu ondotik, hurrengo egunean, abenduaren 7an ikastetxeetako eta aisialdi taldeetako gazteei zuzendutako tailer, hitzaldi eta ikuskizunen egitaraua izango da, bestela esanda, Ikasle Goiza izango da.

Egun horretan Ikasle Goiza izan arren, azoka nahi duen guztiarentzat zabalik izango da 10:30etik 20:00ak bitartean.

Aurrez aurrekoaren alde

Osterantzean, aurten, Durangoko Azokak aurrez aurreko formatuaren erabateko apustua egin du, 2020an, pandemiak eragindako egoerak behartuta, abian jarri zuten online azoka ereduaren leihoa itxiz.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, iaz, azoka presentziala indartu zuten, eta, erabiltzaileek

ere aukera hori lehenetsi zuten. "Hori dela eta, aurten aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu. Online ereduaren leihoa itxiko dugu. Hala ere, pertsona guztiz bota barik; izan ere, etorkizunean horren premia egonez gero, egoerara egokitzeko adi egongo gara", esplikatu zuen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkartearen koordinatzaileak.

Hurrengo astean zabalkundea

Horrekin batera, Gerediaga elkartearen ordezkariak gogora ekarri

"Aurten, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute, online ereduaren leihoa itxiz"



Aurtengo Durangoko Azokaren aurkezpena. DURANGOKO AZOKA

dute Durango Azokaren osteko astean, *Zu non, han DA!* ekimenaren bitartez, Euskal Herri osorako zabalkundeari jarraipena emango zaiola.

Zu non, han DA! ekimenari esker, Durangoko Azokako nobedadeak eskuragarri egongo dira Euskal Herriko hainbat liburu dendatan. Horietako zenbaitetan, gainera, liburu aurkezpen bereziak antolatuko dituzte.

Zortzi gune ditu azokak

Azokaren ezaugarriari dagokionez, berriz, 1990etik liburu eta diskoen azokara, kulturaren diziplina ezberdinak ordezkatzuz, gune bereziak lotzen joan zaizkio eta gaur gaurkoz, zortzi gunetan banatuta dago azoka: Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Kabia, Plateruena eta Azoka TB.

Lankidetzarako topaketak

Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan, baina azoka zabaldu baino lehenago, sortzaileei eta programatzaileei zuzendutako *DA! PRO* aurrez aurreko bi topaketa egingo dira azaroaren amaieran, aurten bosgarren urtez.

Ekimen horren helburua da euskaraz jarduten duten sortzaileen eta programatzaileen arteko lankidetzaz sustatzea.

Hori horrela, *DA! PRO* topaketan, sortzaileek euren lanak erakutsi

Kabia, Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Plateruena eta Azoka TB dira guneak

ahalko dituzte sektoreko programatzaileen, kultur teknikarien, liburutegietako dinamizatzaileen eta bestelako profesionalen aurrean.

Horretarako, batetik, familia ikuskizunen aurkezpen laburrak egingo dituzte, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, azaroaren 28an, goizez. Bibliotekaren beraren eta Berbaro euskara elkartearen laguntzarekin egingo dira aurkezpenok..

Bestetik, musikarien txanda azaroaren 29an izango da. Musika Bulegoarekin batera antolatutako ekimenean, urtean zehar Euskal Herriko kultur aretoetan ekintzak prestatzen dituzten programatzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte sortzaileen lanak. Plateruena kultur aterpean izango da topaketa hori, 09:00etatik 14:00etara.



Amorante. JON GARATE

Elgoibartik Durangora sorkuntza lan oparoa

Oparoa izan da aurten ere Elgoibarko sortzaileen uzta, bereziki literaturan, eta lan gehienak Durangon izango dira salgai. Hala ere, azokak bere eskaparate propioa izango du Elgoibarren ere.

Saiakeran estreinatu da Jasone Osoro, eta *Arrakasta* izeneko liburua eman du argitara, Elkar argitaletxearekin. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta zenbait autoreren aipu eta esanak bilduta osatu du liburua.

Uxue Alberdi, bestalde, bi lan berriekin dator: *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria*. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*, eta Susana Martin komikilariarekin batera argitaratu du (*Ikastolen elkarte*). *Belarriko kilkerra*, bestalde, narraitiba liburua da (*Elkar*). Ahoz kontatu eta belarriaz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkotasuna, memoria, transmisioa eta giza

kondizioaren oinarriak biltzen dituzte. Begoña Durrutyk ilustratu du liburua. Horrez gain, taldean sortutako beste lan batean ere hartu du parte Alberdik, eta talde horretan egon da baita ere Daniele Sarriugarte elgoibartarra. *Zirriborroak* eta *gero* idatzi dute hamar lagunen artean. Etorkizuneari pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen du, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburu honek.

Olaia Irigoien ere idazle paperean estreinatu da 2023an. *Inesa Gaxen* ipuin ilustratua argitaratu du, Adapta argitaletxe kataluniarrekin. 6-8 urte bitarteko umeentzako ipuina da, eta Inesa Gaxenen bizitza kontatzen du. XVI. mendean jaio zen Nafarroa Beherean, eta

sorgintzat hartu zuten. Epaitua eta torturatua izan zen, baina hala ere, ez zuen inoiz sorgina zela onartu.

Musikari dagokionez, Iban Urizar Amorante izango da Elgoibarko ordezkaria Durangon. *Harri, Herri, Har* diskoa kaleratu du Amorantek, Forbbiden Colours argitaletxearekin. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (*Harri, herri, har*) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Kanpaiak, malenkonia, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioeren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.

Durangoko Azoka, Pitzintxun Duragon ez ezik, Euskal Herriko herrietako dendak ere izaten dira Durangoko Azokaren eskaparate, eta sormen lan batzuk herrietako liburu dendetan aurkeztzen dituzte, *Durangoko Azokak* izeneko egitasmoaren barruan. Elgoibarko Pitzintxu opari dendak ere hartuko du parte ekimenean, eta Goiatz Labandibar (*Oiartzun*, 1985) idazleak bere azken lana aurkeztuko du bertan: *Bekatua*. Biharamun emozional baten kontakizuna da. Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi eta horrek bere ordurako bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta usteak irauliko ditu. Abenduaren 13an izango da aurkezpena eta ordura aurrerago zehaztuko dute.

Elgoibarko sortzaileek ere beraien azken lanak erakutsiko dituzte Durangoko Azokan



Hitz jokoetan aditua eta aritua izan zen gazte ermuarra.

Markos Gimenoren sormena ikusgai

Joseba Sarrionandiak Markos Gimenoren 101 letrakartel liburua aurkeztuko du Durangoko Azokan, abenduaren 8an.

Markos Gimeno *autore erotua* da, eta horra hor liburu honetan agertzen den lehen palindromoe-tako bat, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin-berdin irakurtzen den hitz, zenbaki edo perpausa. Kasualitateak sortu-takoak direla eman dezakeen arren, hitz joko horien atzean irudimen eta sormen esparru zabala dago, eta mundu horretan bere saltsan ibiltzen zen Ermuko gaztea.

Joseba Sarrionandia idazleak duela bi urte ezagutu zuen Markos Gimeno ermuarraren lana eta, liluratuta, haren "jenialtasuna" munduan zabaltzeko erabakia hartu zuen: "...harrigarria iruditu zitzaidan Markosek sortutako obraren grazia. Are ikaragarriagoa iruditu zitzaidan momentuan ia ezezaguna izatea, euskal mundutxoan ere, Ermutik

edo Eibar aldetik kanpora", azaldu du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean.

Sortzailearen inguruan beti izan den senide eta lagun sare horretara hurbildu zen idazle iurretarra, eta lana biltzeari ekin zion, baina ez Markosen lan guztiak liburutikote baten bildu eta argitaratzeko, baizik eta bere obra "kalepsiatik atera, eta haren lanaren parte bat behintzat, palindromoen, euskal hitzunen artean (...) ezagutarazteko; iratzarri, bizkor-tu eta zabal dadin".

Horrela sortu zen Markos Gimeno-ren 101 letrakartel, Markosen palindromoekin hainbat marrazkilarik, grafiterok eta argazkilarik egindako ehunetik gora kartel biltzen dituen. Kolaboratzaile hauen artean daude, besteak beste, Esther Astarloa, Jose Antonio Azpilikueta, Sonia Garcia, Gorka

"Kartel palindromiko bakoitza (...) jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat"

González, Exprai, Santos Vega, Monti, Klemen Corredera edota Tono Fernandez. Guztira, ia 40 lagunek parte hartu dute, lanari askotariko ikuspuntu eta ukituak erantsiz. Material guzti hau batu eta forma eman, edizio grafikoa alegia, Esteban Montorio diseinatzailearen esku utzi da.

Markosen inguruan

Markos ezagutzen ez zutenek haren bizitzaren gorabehera guztiak, edo gehienak, topatuko dituzte liburuaren lehen berrogeita hamar orrietan, inguruko enahotsek kontatuta. Hona hemen liburuaren erreseinan topatu daitekeen aurkezpen laburra: "Markos Gimeno Vesga 1974ko maiatzaren 3an jaio zen Ermuan. (...) Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaitasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an.

Markos bizi osoa (...) sortzen ibili zen euskal komunitatearentzat (eta humanitate osoarentzat, jakina). Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistikoa bat aportatzen du, eta jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat".

Liburua eskuratu

Liburua irakurri nahi dutenek Durangoko Azokan eskuratu ahal izango dute. Era berean, Ermuko eta Eibarko liburu-dendetan salgai jarriko da, hala nola Interneten ere.



Pop, folk, elektronika eta sustraiko musika dira nagusi Izaroren azken diskoan.

Izarok aro berri bati emango dio hasiera

Mallabiko abeslariak Durangoko Azokan aurkeztuko du bere bosgarren diskoa, *Cerodenero*, hala nola bideoklip berria

"Bi urte eta zertxobait gehiago egon gara *Cerodenero* eraikitzen. Hasieran, nik bakarrik hasten dut beti ibilbidea eta bidetik jendez inguratzen noa elur bola txiki bat bezala, handi-handi heltzen dena mendi magalera". Hitz horiekien laburtzen du Izaro abeslariak *Cerodenero* diskoa sortzeko prozesua, eta abenduaren 8an berau osatzen duten hamabi abestiek argia ikusiko dute Durangoko Azokan.

Abeslariak aurreratu duenez, *Cerodenero* album kontzeptuala zirrargarria eta bizia da. Berak burututako barne-bidaia da, eta, bertan berreskuratzen ditu pop, folk, elektronika eta sustraiko musika doinuen kontrastez beteriko mihiseak, lehen estrofatik harrapatzen duten poesia eta metafora zertzeladak dituztenak. "Izarok bere alderik argitsuena erakusten digu, baina baita ba-

satiena ere, aro berri beti hasiera emanez", adierazi dute zabaldu-tako prentsa oharrean.

Diskoak hamabi abesti biltzen ditu eta horietako lau entzungai daude dagoeneko hainbat plataformatan eta ikusgai YouTubean: *introa*, *Zero*, irailean estreinatuz; horren ostean, *x eta besteak* zabaldu zen; urrian, *Campamento base* eta azaroan, *Iparraldera*. Abenduaren 8an, bosgarren bideoklipa estreinatuko du, Durangoko Azokako Irudienean, 13:00etan. Horrez gain, standa izango du Azokan, eta bertan egongo da eguneroko sare soziale-tan jakinarazi duenaren arabera.

Aurrezalmenta

Izarok bi formatutan kaleratuko du *Cerodenero*: biniloan (35 €) eta CDan (18 €); eta bere webgunean eros daiteke dagoeneko (www.izaromusic.com), abeslariak aurrezalmentari ekin baitzion urriaren 10ean. Bide hau erabiltzen dutenek abenduaren 8tik aurrera jasoko dute diskoa, abeslariak sinatuta.

Durangoko Azokan erosten dutenek ere Izaroren sinadura eramango dute *Cerodenero*ren azalean.

Aurkezpen bira


Durangoko hitzordua eta gero, aurkezpen birari ekingo dio Izarok. Hala, urtarrilaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian joko du; 3an eta 4an Donostiako Kursaal Auditorioan; 13an Las Palmaseko Sala Insular de Teatron akustikoa eskainiko du eta 20an akustikoa baita ere Pozuelo de Alarconeko Inverfest Teatro Miran. Otsailaren 3an Gasteizko Principal Antzokian egongo da; 9an Bartzelonako Apolo aretoan; martxoaren 2an Sevillako La Cartujan joko du, eta iragarrita dagoen azken kontzertua martxoaren 18 burutuko da, Iruñeako Baularten. Sarrerek salgai daude dagoeneko.

Izarok iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, *Limones de oro*, Amaral, Xael López, Zahara eta Rozalen bezalako artistekin batera grabatutakoa. Haiekin batera, estatu osoan zehar bira egiteko aukera izan zuen eta Helsinki, Paris, Mexiko Hiria eta Buenos Aires bezalako hiriburuetan egon zen. Disko hari lotutako biran, Anoetako Belodromoko sarrerek agortzea lortu zuen, hori egitea lortu duen lehen emakumea izanik.

Urtarrila eta martxoan bitartean aurkezpen bira burutuko du, eta sarrerek salgai daude dagoeneko



Jon Artanok 'Juana' liburua plazaratu du



Jon Artano zestoarra 'Juana' liburuaren aurkezpenean, Donostian. ELKAR

Jon Artano Izeta kazetariak (Zestoa, 1978) bere lehen liburua argitaratu du, *Juana*, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren laguntzaz. Kazetaritza "su geldoan" egin nahi zuen Artanok eta horretarako baliatu du beka. Azken asteotan Donostian, Deban eta Zestoa aurkeztu du

emaitza eta Durangon egingo du beste aurkezpen bat, abenduaren 8an (19:00etan).

Juana Perea Plata da liburuiko protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako euskal familia batean jaiotako "ardi beltza", legendazko emakume bat. Nera-be zela, etxetik alde egin zuen Karibera. Urpekari profesional

bihurtu zen, belaontzietan bizi izan zen, telebistan produktore lanak egin zituen, Afganistanen ibili zen gerran, hotel bat eraikitzen hasi zen gero... "Oso noizean behin sortzen diren pertsona horietako bat izan zen *Juana*", laburbildu du Artanok. "Abenturazalea, ausarta, mugarik ezagutzen ez zue-na, mugak topatuz gero mugak pasa egiten zituena, erakarpin indar handikoa... Bere senide bat-ek esan zidan bezala, urakan bat zen". 2020ko urriaren 29an tiroz erail zuten Kolonbian, "agian marra bat baino gehiago gainditu zuelako, agian gehiegi nabarmen-du zelako".

"Nahikoa bere horretan"

Artanok Anderik Ande izeneko proiektuarekin irabazi zuen iaz Tene Mujika beka. Ameriketako ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta Euskal Herrian dabil-tzan hainbat amerikarrenak jasot-zea zen hasierako asmoa eta sei hilabeteko bidaiari ekin zion Ar-gentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian. Azke-nean, ordea, Perearen eta haren familiaren istorioari eman dio li-buru osoa, "liburu izateko nahikoa zelako bere horretan".

Tene Mujika eta haren ekarpena, argitara

Tene Mujika bekaren fruitu diren liburu-uz gain, Robustiana Mujika Egaña, *Tene* (1888-1981) idazle eta olerkari debar-raren irudia eta lana ezagut-zeraz emateko bestelako argi-talpenik ere izango da aurten azokan. Otsailean aurkeztuta-ko *Tene* Mujika emakumea. Piz-kundetik ahanzturara. XXI. men-detik ateratako postargazkiak ikerlana da adibideetako bat.



Nekane Goikoetxea. AIURRI

Mondragon Unibertsitateko irakasle Nekane Goikoetxea Agirrek (Deba, 1970) osatu za lana. Helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta, bere ekarpenari balio handiagoa eman nahi izan dio egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen bekarekin ondu du ikerlana Goikoetxeak.

Sei disko Gaztelupeko Hotsak diskoetxetik

Euskal musika doinu latinoekin, jazz-a, euskal tradizioaren eta melodien egokitzapenak, Nick Caven bertsoiak... denetarik izango da

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sei disko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan, Zabaltzenen standean.

Sei disko horietatik bi Gaztelupeko Hotsak zigilupean argitaratutakoak dira: Txuma Murugarren entzutetsuarena eta Ache Pa Ti taldearena. Beste laurak, berriz, Errabal Jazz zigilupean argitaratu dituzte: Javier Lopez Jaso, losu Izaguirre Sextet, Giulio Ottanelli Quartet eta Nevermind Quartet.

Txuma Murugarren: Gautegia
Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Azkarate Xarrak nabarmendu duenez, "Gautegia/Nocturama Txuma Murugarrenen diskografiaren mugarri da orain eta gaurtik aurrera. Bere Nick Caverekiko mirespen eta lilura azaltzeaz gain, Txuma bera, egile eta sortzaile berezi bezala dagokion lekuan jarri dezakeena eta jarriko duena. Handien artean, nola ez."

Ache Pa Ti: Bilakatzen

Jazz latino eta kubatar sustraiko musikarekiko zaletasuna Euskal Herriko kultura eta folklore tradizionalarekin uztartzen dituen Ache Pa Ti talde iruindarrak, berriz, *Bilakatzen* izeneko bigarren diskoa argitaratu du. Bertan, "bereziki deigarria da txistuaren presentzia eta garrantzia, bera baita nagusi eta gidari doinu gehienetan, erraztasun eta naturaltasun txundigarritz moldatuz era guztietako doinu eta erritmo latinoetara. Ache Yoruba hizkun-



Txuma Murugarren.

tzako hitza da eta *Ache pa ti* esarak zorte on eta zoriontasun nahia adierazten du", azaldu du Xarrak.

Javier Lopez Jaso: Zimelezin

Bestalde, Azkarateren esanetan, Oiartzungo Mecca estudioetan grabatutako proposamenarekin dator Javier López Jaso soinu-jole nafarra *Zimelezin* diskoarekin. Mikel Andueza saxofonista, Marcelo Escrich kontrabaxua eta Dani Lizarraga bateria-jotzailea moduko musikari eta lagun handiez inguratuta, bidaia moduko bat planteatzen du. "Javier beraren kantu originalekin batera, euskal tradizioaren erritmoen eta me-

lodien egokitzapen bikain eta sofistikuak, eta mitologia kutsuko kantu herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori) aurki ditza-gegu bertan".

Iosu I. Sextet: Mingus Mood

Iosu Izaguirre Sextet taldeari dagokionez, "Mingus maisuaren musika disezcionatu eta osagai txiki eta sinpleenetara murriztu du, haiekin omenaldi moduko eraikiz eta "guztiz Mingus" bat aurkeztuz", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Xarrak. Gaineratutakoaren arabera, Iosu Izaguirrek konposatutako zortzi doinuz osatutako lana da *Mingus Mood*, Gasteizen 2022an grabatuta, Vital Fundazioaren Araba Aretoan.

Giulio Ottanelli Quartet


Getxoko Jazzaldien 46. edizioan talde onenaren saria Giulio Ottanelli laukoteari eman zitzaion. Parisko goi mailako kontserbatorioan ezagutu zituen Jeremie Lucchese (saxo tenorra), Cyril Drape (kontrabaxua) eta Emile Rameau (bateria), eta eurekin sortu zuen laukotea; eurak ere izango dira presente Durangoko Azokan. "Taldearen musika, euren emanaldiak hain erakargarri egiten dituzten melodia luzeetan oinarritzen da", dio Xarrak.

Nevermind Quartet


Azkenik, Xarrak nabarmendu duenez, Euskal Herriko jazz eszenan presentzia handiko musikariak dira Nevermind Quartetekoak. Hasier Oleaga The Heckler-en, Teresa Zabalzaren boskotean edo Ruper Ordorikaren eta Mikel Laboaren ondoan aritu izan da, Julen Izarra Trizak taldean, Jorge Abadias hainbat ekimen biltzen dituen ibilbide luzearen jabe da eta Aritz Luzuriaga Bilboko JC Arriagako kontserbatorioko irakaslea da, besteak beste.




Debabarreneko uzta



NEREA LOIOLA PIKAZA
 'Idatzi behar nizkizunak'
 Erroa argitaletxea.




NEREA LOIOLA PIKAZA
 'Azken denbora'
 Bilduma: Eskapu liburuak, 2. Erein argitaletxea.




ANE BASTIDA LIZASO
 'Hideane eta bere lagunak'
 Ilustrazioak: Nadia Beltran de Lubiano. Denonartean argitaletxea.



GOIZANE AIZPURUA IBAÑEZ
 'El reflejo de la tibieza'
 Alberdania argitaletxea.




JON ARTANO IZETA 'Juana'
 Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE
 'Tene Mujika emakumea.
 Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak'
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



TIRO 'Gure irtenbidea'
TAE Records diskoetxea.



JOKIN BERGARA 'Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak'
Txalaparta argitaletxea.



KVALVIKA 'KVK'




OLAIA IRIGOIEN 'Inesa Gaxen'
Adapta argitaletxea.

OLAIA IRIGOIEN 'Misión Don Quijote y Sancho Panza'
Adapta argitaletxea.



UXUE ALBERDI ETA DANELE SARRIUGARTE 'Zirriborroak eta gero'
Consoni argitaletxea.




UXUE ALBERDI 'Surflaria'
Ikastolen elkarte.

Uxue Alberdi
Begoña Durruty
BELARRIKO KILKERRA



UXUE ALBERDI 'Belarriko kilkerra'
Elkar argitaletxea.



JASONE OSORO 'Arrakasta'
Elkar argitaletxea.



MUSIKA



AMORANTE 'Harri, herri, har'
Forbiden colours argitaletxea.

MALLABIA

MUSIKA



IZARO 'Cerodenero'

ERMUA

LITERATURA

**GORA GURE ALKATE
JAKINTSUA!**

Txabi Arnal - Edu Zelaia - Belatz



TXABI ARNAL ETA EDU ZELAIETA
'Gora gure alkate jakintsua'
Elkar argitaletxea.



JOSEBA SARRIONANDIA 'Markos
Gimenoren 101 letrakartel'
Pamiela argitaletxea.

SORALUZE

MUSIKA



TXUMA MURUGARREN 'Gautegia'
Gaztelupeko Hotsak.



ACHE PA TI 'Bilakatzen'
Gaztelupeko Hotsak.



JAVIER LOPEZ JASO 'Zimelezin'
Errabal Jazz.



IOSU IZAGUIRRE SEXTET 'Mingus
Moods'
Errabal Jazz.



GIULIO OTTANELLI QUARTET
'Getxo Jazz 2023'
Errabal Jazz.

NEVERMIND QUARTET 'Boost lau
gara'
Errabal Jazz.

MUZAK 'Irabaziak eta galerak'

"Daukagun zarata guztia aterako dugu Ahotsenean"

JOANES IÑURRIETA BOKALISTA

Ahotseneako oholztan izango diren 49 taldeen artean, bat, Muzak, Debabarrenekoa da. Abenduaren 10ean, 15:40an egingo dute zuzenekoa.

Muzak taldeko Joanes Iñurrieta (Soraluze, 1991), Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) eta Aitor Sagarremendi (Mutriku, 1994) "pozik" daude aurten Durangoko Azokako Ahotsenean egon ahal izatea lortu dutelako. Joanes Iñurrieta taldeko bokalista soraluzetarrak azpimarratu du Durangon taldeak duen "zarata guztia" aterako dutela.

Ahotsenean kontzertua eskaintzea beste jauzi bat izango da Muzak taldearendako?

Durangoko Azoka, Euskal Herri mailan, oso hedabide ona da, artista baldin bazara, batez ere. Urteko ekimenik potenteena da kulturalki musikaren eta liburuen arloan eta hor egotea oso garrantzitsua da. Iaz, saiatu ginen *Programaturik* lanarekin Ahotsenean sartzen, baina ez genuen lortu. Aurten pozik gaude lortu dugulako eta han egongo garelako.

Zer eskainiko duzue Ahotsenean?

25-30 minutuko kontzertua izango da, lau-pabost abesti joko ditugu guztira. Ez da izango kontzertu akustikoa. Daukagun zarata guztia aterako dugu.

Denetik joko duzue?

Aurten atera dugun *Irabaziak eta Galerak* (Gaztain Estudioak) EPan oinarritutako zuzenekoa izango da eta oporren aurretik publikatu genuen *Gezur Mila* singlea ere sartuko da. *Irabaziak eta Galerak* EPari dagokionez, *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021) laneko abesti guztiak ere baditu.

Bigarren EPan zuen bi lanetako kantu guztiak batu dituzue?

Bai. Kontua da lehen diskoarekin, *Programaturik*-ekin ez genuela atera disko fisikoa eta gero damutu egin egin ginela. Hala, *Irabaziak eta Galerak*-ekin CDa atera genuen. CD horrek dauzka lau abesti berri

gehi bonus modura, *Programaturikeko* zazpi abestiak gehigarri.


Eta zuen CD hori erosteko aukerarik izango da Durangoko Azokan?

Bai. *Irabaziak eta Galerak* salgai egongo da azokako Musika Zuzenenean-en standean.

Zergatik damutu zineten diskoa atera ez izanaz?

Disko fisikoa gaur egun ez da asko saltzen, baina gertatu izan zaigu momentu puntualetan jendeak eskatu izana eta pena horrekin geratu ginen, fisikoa nahi duen horri diskoa ezin emanarekin,

"Durangoko Azoka da urteko ekimenik potenteena musikaren eta liburuen arloan"





Aitor Sagarmendi, Joanes Iñurrieta eta Ruben Irigoyen.

MUZAK

aparte, abesti ona da, denbora inbertitu dugu single horretan, lana dauka eta entzuteko gustoso da. Bestalde, saiatzen gara konstantzia mantentzen, abestiak publikatzerakoan, sare sozialetan idazterakoan... Hor egon behar duzu, bestela...

Sare sozialak zaintzen ibiltzen zarete, justu zuek 'Gezur Mila' kantuan kritikatzeko dituzuen sare sozial horiek...

Bai, abestiak kritika hori egiten du. Kontziente gara sare sozialek pertsonengan duten eraginean, baina horren konplize ere bagara. Paradoja moduko bat da.

Urrian eskaini duzue aurtengo biraren azken kontzertua; non egon zarete gusturen?

Su ta Garrekin Elgoibarren, edo gustuko ditugun bestelako taldeekin. Adibidez, Bergarako Kartzela Zaharrean Sofa eta Dena taldeekin jo genuen.

Abenduan Ahotsenean jo ondoren, baduzue bestelako asmorik taldearendako?

Zuzenean jotzea. Normalean ez diegu ezezkorik ematen joteko aukerei eta beti gaude zabalik proposamenetarako. Bestalde, sortzen ere hasi gara dagoeneko. Ez dugu erabaki zer izango den, diskoa ala singlea, baina sortzen ari gara eta hori garrantzitsua da. Sortutako lanaren helburua gure buruak asebetetzea izaten da, eta ez da erraza izaten oso zorrotzak garelako horretan.

guretzat zer bait berezia ere bada guri disko fisikoa eskatzea. Tabernetan edota aretoetan lagatzeko ere aproposa da... Kasu gutxi izan arren, CD fisikoa ateratzeak me-rezi zuela erabaki genuen. Ehun ale atera genituen, hogeitik behera geratzen dira eta oraingoz ez dugu kopia gehiago ateratzeko asmorik.

Gezur mila singlea uda aurretik dago entzungai, zelako harrera izaten ari da ?

Harrera oso ona izan dugu. Hori ikusi dugu plataforma digitaletan, oso ondo kontabilizatzen dira entzunaldiak. Spotifyn, adibidez, erreproduktzio gehien izan dituen Muzak-en abestia da. Horrez aparte, kritika onak izan ditugu, batez ere gertuko jendearenak. Gure soinetatik jarraitzen dugu. Taldearen nortasun propioa erakusten du.

Zein da zuen nortasun hori?

Hirurok oso gaztetatik izan dugu bereziki distorsionatutako gitarrekiko predilekzioa hori, talde ezberdinak entzuten ditugun arren. Nik Pop-Rock-era egin izan dut beti gehiago eta Ruben eta Sagar-ek Metal-era (progresiboa, death, doom...). Gainera, proiektu oso ezberdinetan izandakoak gara Muzak sortu aurretik.

Zergatik uste duzue azken single horrek izan duela arrakastarik handiena?

Musikari moduan pauso txikiak ematen goaz pixkanaka-pixkanaka eta geroago eta difusio handiagoa lortzen ari gara. Horrez

"Gezur mila da erreproduktzio gehien dituen Muzak-en abestia"

"Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan"

JOKIN BERGARA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Gogoeta soziologikoak, politikoak eta pertsonalak tartekatuz, trantsizio ekosozialaren tentsio-ardatzak aurkezten ditu eibartarrak 'Adaxka lehorrak' liburuxkan. Abenduaren 8an, 17:30ean, izango da aurkezpena.

"Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak" da liburuaren izenburua. Biharamun horiek bizi ditugu dagoneko? Heltzeaz daude? Zein momentutan aurkitzen gara?

Talka ekosozial hori pizten ari gara eta biharamunaren kontzeptua erabili dut, modu metaforiko baten esateko horrek ondorio sozial eta politiko batzuk ekarriko dituela eta ekartzen ari dela jada. Krisi ekologikoan sakondu ahala, geroz eta maiztasun eta indar gehiagorekin joango gara bere ondorioak ikusten, bai klimaren aldetik, bai krisi energetikoaren aldetik, baita ondorio politikoen aldetik ere. Azken horrekin lotzen dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsu eta gerrazalea, besteak beste.

Krisi ekologikoa aztertzeaz gain, zer bide zabaldu daitezkeen irudikatzen saiatu zara. Zeintzuk dira bide horiek?

Gai hau bada beldurra sortu dezakeen gai bat. Batzuek paralizatzailea dela diote. Beraz, eraldaketan sinesten dugunok, eraldaketa horri bizirik eusteko aldarria egiten dugu liburuan. Eta zer bide hartu dezakegun? Hainbat proposamen egiten dira. Adibidez, industria, gaur ezagutzen dugun bezala (Debabarrean makina-erremintari eta automozioari oso lotuta dagoena), oso sektore kutsatzailea da, eta liburuan ariketa bat egiten da birmoldaketa nola egin pentsatzeko, ikuspegi demokratiko batetik. Hau da, trantsizio ekosoziala erabiltzea enpresak

"Krisi ekologikoaren ondorio dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsua"

demokratikoagoak izateko (aberrastasuna gehiago banatzeko lanegileen artean, adibidez). Horrela, behar dugun trantsizio kulturalari bideratuta dago liburuaren zati handi bat. Gaur egun 'bitzita ona' bezala identifikatzen dugun horri eta gure identitatea eraikitzeke erabiltzen ditugun ekintza horiei kritika egiten zaie (kontsumoari, oporretara joateko 10 orduko bidaiak egiteari, auto eta etxe berriak erosteari...). Gure identitatea eraikitzeke beste mekanismo batzuen beharra agertzen da, lasaiago bizitzeko aldarria, eta gutxiagorekin bizitzea ez dela zertan izan okerrago bizitzea, baizik eta hobeto bizitzea, denbora gehiago izan dezakegulako lagunekin egoteko, gurasoak edo seme-alabak zaintzeko, irakurtzeko edo gustuko dugun edozer gauza egiteko.

Beraz, trantsizio ekosozialak hainbat arlo ezberdin zeharkatzen ditu?



Abenduaren 8an aurkeztuko du liburua Bergarak Durangoko Azokan. TXALAPARTA

Bai, noski. Hori da krisi ekosozialaren ideia. Hau da, badago krisi material bat, ekologikoa bezala definitu daitekeena zientifikoki (klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, energia krisia, baliabideen agortzea...); eta gero, alde soziala dago, oinarri material guzti horren krisiak krisi sozialak eragiten dituelako sistema kapitalista honetan. Hor sartzen da gizartea beste modu baten antolatzeke eztabaida eta, noski, politika, soziologia, historia, ekonomia, zuzenbidea... Denetik, azken neurrian.

Liburua Euskal Herrian kokatzen da edo mundu mailako arazoak lantzen dituzu?

Krisi ekosozialari Euskal Herritik begiratzen saiatu naiz, jakinda maila globalean adierazten den gaia dela. Gure herriaren ezaugarriak kontuan hartuta, Euskal Herrira ekartzen saiatu naiz, eta honek gure herrian zein tentsio

nagusi sortzen dituen. Adibidez, energia berriztagarrien inguruan dagoen eztabaida hau da: "jarriko ditugu?", "ez?", "non?". Nire ustez, zabaldu behar den eztabaida hurrengo izan behar da: Energia berriztagarriak lortzeko behar ditugun mineralak hegoalde globaletik ateratzen ditugu, nolabaiteko neoestraktibismo prozesuetatik, eta gure trantsizio berdea pentsatzeko herrialde horiekin nola harremandu beharko ginatekeen eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, Ekuadorreko Amazonian badago egur mota bat oso ona omen dena haize-erroten

"Ekuadorreko Amazonia ari gara deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko"

palak ekoizteko (asko irauten baitute eta ez direlako azkar higitzen). Orduan, gertatzen ari dena da Europako eta AEB-ko enpresak sartu direla han lehengai hori erostera eta, ondorioz, Ekuadorreko Amazonia ari garela deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko. Paradoxikoa da.

Liburuxka arina egiten saiatu zarela aipatu izan duzu. Gaia gehiago garatzeko gogoarekin geratu zara?

Liburuxka hauen helburua (eta hortik bere formatua) eserialdi baten irakurtzeko modukoak izatea da. Hau da, arratsalde baten hiru-lau ordutan irakurtzeko modukoak izatea. Idazteko eskatu zidatenean hori izan zen arazoa: zertan zentratu, zeri garrantzia eman... Orduan, liburuxka motza denez, laburtzea pixka bat kostatu zait eta, agian, gauza batzuk behar duten sakontasunik gabe joan dira, baina tira, sintetizatze lan batek hori eskatzen du.

Beraz, oso sakona den gai bati heltzeko balio dezake? Krisi ekosozialaren inguruan sakontzen hasteko baliagarria da?

Hori da. Ez da gaiaren inguruko doktoretza tesi bat. Gehiago da gai honetan hasi nahi duenak edo interesa duenak hartzeko eta modu azkar baten gaian sarrera bat edukitzeko.

Ahotseneako musika egitaraua

Asteazkena 06



NØGEN 11:00-11:30

KONPOST 12:10-12:40

ESANEZIN 13:20-13:50

LILLO 14:30-15:00

POSTAL KOLEKZIONISTAK 16:50-17:20

AKALEIA 18:00-18:30

YOGURINHA BOROVA 19:10-19:40

MARLIK 20:20-20:50

ARIMA 21:30-22:00

Osteguna 07

XABI SAN SEBASTIAN 13:20-13:50

KADIRA 14:30-15:00

BRAULIO 15:40-16:10

MURGI 16:50-17:20



MOXAL 18:00-18:30

ZATIBI 19:10-19:40

ZEKER 20:20-20:50

EZEZEZ 21:30-22:00

Ostirala 08

LOTURA 11:00-11:30

EIDER 12:10-12:40

EIRE 13:20-13:50

MIREN ETA ROBERTO

ETXEBARRIA 14:30-15:00

NAKAR 15:40-16:10

ITHAKA 16:50-17:20



SARA ZOZAYA 18:00-18:30

TXOPET 19:10-19:40

SILITIA 20:20-20:50



TOC 21:30-22:00

Larunbata 09

KE LEPO 11:00-11:30

TRB 12:10-12:40

AMORANTE 13:20-13:50

LEIHOTIKAN 14:30-15:00

HAIZE-ARROSA 15:40-16:10

OTOI 16:50-17:20



ETXEPE 18:00-18:30

RUKULA 19:10-19:40

FELINE 20:20-20:50



IBIL BEDI 21:30-22:00

Igandea 10

INTZA 11:00-11:30



MAMU 12:10-12:40

KARMA 13:20-13:50

HAIRA 14:30-15:00

MUZAK 15:40-16:10

KUMA NO MOTOR 16:50-17:20



MODUS OPERANDI 18:00-18:30

KEMARONTE 19:10-19:40

MUARE 20:20-20:50

JABI PATXON ETA KOFRADIA

ROCK 21:30-22:00

Eider Otxoa terapeutak Gabonak, heriotza eta dolua izango ditu hizpide Kultur Elkarteko saioan



Gabonak gero eta gertuago dauden honetan, Eider Otxoa terapeutak data berezi horietan dolu prozesuari nola aurre egin azalduko du abenduaren 14an, ostegunean, 18:30ean, Kultur Elkarteko areto nagusian emango duen *Gabonak eta aulki huts bat(zuk) etxean* hitzaldian.

Aretxabaletako Dolulaguna zentroko arduraduna da Otxoa eta hainbat urte daramatza "heriotzek sortutako minak arintzeko prozesuetan" laguntza profesionala eskaintzen. Haren esanetan, "heriotza, orokorrean, gai tabua da eta Gabon garaia bereziki zaila izaten da dolua bizitzen dauden pertsonentzako, emozioek gainezka egiten dutelako, mundu guztia pozik dagoelako eta pertsonak elkartzeko sasoia delako". Deban egingo duen solasaldian, "isilean gordetakoak kanpora ateratzea eta hitz egiteko espazio bat zabaltzea" bilatzen du adituak.

Saioa gaztelaniaz izango da, eta sarrera doakoa eta librea izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Dena den, aretoa bete egingo dela aurreikusita, garaiz bertaratzeko deia egin diete interesa duten herritarrei.

Irundik Baionara egingo da 23. Korrika, martxoaren 14tik 24ra, 'Harro Herri' goiburupean



Azaroaren 16an Donostiako San Telmo museoa egindako agerraldian aurkeztu zituzten AEK-ko kideek datorren urteko Korrikaren xehetasun nagusiak.

Oraingo honetan, Irun izango da 2024ko martxoaren 14an lekukoari irteera emango dion herria eta, 11 egunez Euskal Herri osoa zeharkatu ostean, Baionan festa giroan amaituko da martxoaren 24an euskararen aldeko lasterketa herrikoia 23. edizioa.

'Harrotasuna'

Antolatzaileek azaldu bezala, "euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasunaren adierazle eta erakusle" da edizio honetarako hautatu duten leloa, *Harro Herri*. Hala ere, "harrotasun hori konformismoarekin ez nahasteko" eskatu dute, "erakundeek euskararen normalizazioan duten ardura garrantzitsua" azpimarratuz.

Aurtengo omendua Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektiboa da, "Frantziako Estatuko hizkuntza-legeari aurre eginda baxoa eta brebeta euskaraz egiteko eskubidea" aldarrikatzen duena.

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan


943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Berriketan .eus

albisteak iritziak agenda mediateka

Bete-betea dator Euskeraz Bagera zikloa

Euskararen erabilera sustatzea helburu duen Euskeraz Bagera ekimena hirugarren aldiz egingo da aurten. Zuhatza Euskara Elkarteak, Debako Udala eta beste hainbat eragile, talde eta norbanakoren ekimenez prestatu den egitarauak hamar egun hartuko ditu guztira, azaroaren 24tik abenduaren 16ra bitartean, eta askotariko ekintzak barnebiltzen ditu. Antolatzaileek elkarlana oinarri eta hizkuntza ardatz dituen egitasmoarekin bat egiteko deia eta jardueretan parte hartzeko gonbita egin diete herritar guzti-guztiei.



Orain aste batzuk "hasierako zirriborroa" baino ez zuten esku artean, eta dagoeneko egitarau mardula osatu dutela jakinarazi dute Euskeraz Bagera zikloko antolatzaileek.

Aurrez herritarrak gonbidatu zituzten proposamenak egin eta ekimenean parte hartzera. Eta, ondorioz, elkarlanaren fruitu izango da azaroaren 24tik abenduaren 16ra bitartean "denon artean" gauzatuko den egitaraua. "Euskara ardatz hartuta, hirugarren aldiz egingo dugu aurten ekimena, Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan, betiere aisialdiaz euskeraz gozatu eta herritarron artean harreman sare berriak eraiki ahal izateko erronkari helduta", nabarmendu dute.

Zuhatza elkarteak, Debako Udalak eta hamarnaka norbanakok ez ezik, ondoko eragileek ere bat egingo dute aurtengo jardunaldiekin: Debako Gazte Asanblada, Debako Kontalariak, Kultur Elkarteak, Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldea, Mendata BHI ikastetxea, Deban Kanean Kantuz, Iruleak Emakume Pilotariak, Debadezine, Debanatura, Ikigai zentroa eta Goimek.

Programazioan hamasei ekintza aurreikusten dira orotara, hamar egunetan banatuta. Tartean dira, besteak beste, adin guztietako herritarrentzako ikuskizunak, musika emanaldiak, jolasak, tailerrak, irteerak, aldarrikapen mobilizazioak nahiz zinema proiektzioak (ondoko orrialdeetan ikus daiteke egitarau osoa).

"Mingainak euskaraz dantzatzeko" bilgune izango da III. Mintzodromoa



Mingaina dantzan jarri eta giro gozoan euskaraz hitz egiteko gunea eskaintzera dator, hirugarrenez, Mintzodromoa. Agirre jauregiko Ispiluen gelak hartuko du Zuhatzaren eta Debako Udalaren ekimenez doan egingo den saioa; azaroaren 29an izango

da, 18:00etan, eta hitzordua biribiltzeko luntxa ere eskainiko dute gero bertaratutako guztientzat.

Funtsean, hainbat gairen inguruan iritziak trukatzeko gunea da Mintzodromoa. Bi lagunek gidatuko dute saioa; bertan, lauzpabost laguneko mahaietan eserita, parte hartzaileek askotariko gaiez hitz egiteko aukera izango dute eta, denbora tarte batez hizketan aritu ostean, beste mahai batean eseriko dira, jende berriarekin elkartuz.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte Mintzodromora. Adin eta profil ezberdineko jendeak parte har dezake saioan; euskaraz hitz egitea da bertan jarduteko baldintza bakarra, hizkuntza maila edozein dela ere. Aurrez eman behar da izena (632 04 33 22).

Gaitu proiektuarekin bat eginez, euskaldunen ahotsak biltzeko deia



Makinek eta teknologia berriek euskara ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar zaie, eta horretarako abiatu dute Gaitu kanpaina Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Hiruko Itunak, Euskaltzaleen

Topagunearekin eta Librezale elkartearekin batera. Milaka ahots bildu nahi dituzte, milaka grabazio-ordu euskaraz. "Guztion artean sortuko dugun ahotsen datu-basea enpresa guztiek erabili ahal izango dute gero, euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko, euskaldun guztion onurarako", adierazi dute.

Ekimenarekin bat egin du Debako Udalak, eta herri-tarrei proiektuan parte hartzeko deia egin die. Bi bide proposatu ditu horretarako: batetik, maila pertsonalean noiznahi ahotsa grabatzeko aukera dagoela gogorarazi du (*gaitu.eus* atarian sartuta); bestetik, abenduaren 2an eta 3an (10:00etatik 14:00etara) udaletxeko areto nagusian egingo diren grabazioetan parte hartzeko gonbita egin die herriko eragileei eta norbanakoei.

AZAROAK 24 (OSTIRALA)

18:00 | **Umeentzako ikuskizuna: Niala magoa** | **Gaztetzear**
Ondoren, txokolatada Debako Gazte Asanbladaren eskutik

AZAROAK 25 (LARUNBATA)

10:30 | **Gurasoentzako jolas tailerra*** | **Ispiluen gelan**
Izen-ematea 5€ | 688 66 37 44 - euskara@deba.eus

AZAROAK 26 (IGANDEA)

10:30 | **Irteera gidatua Osioko basora*** | **Osioko parketik**
Diego Mendoza biologoak gidatuta | Plaza mugatuak
Izen-ematea doan | 695 78 36 56

AZAROAK 29 (ASTEAZKENA)

18:00 | **Mintzodromoa*** | **Ispiluen gelan**
Euskaraz giro gozoan hitz egiteko gunea
Herritar orori zuzendua, hizkuntza maila edozein izanda ere
Izen-ematea doan | 632 04 33 22
Ondoren, luntxa egongo da

ABENDUAK 1 (OSTIRALA)

10:30 | **Literatur lehiaketaren sari banaketa** | **Mendata BHI-n**

17:00 | **Euskaraz blai jolasten** | **Udaletxeko arkupeetan**
Kolore Anitzen ekimenez | HH eta LHko haurrentzat

20:00 | **Kontzertua: Gari*** | **Kultur Elkartean**

ABENDUAK 2 (LARUNBATA)

10:00-14:00 | **Gaitu.eus: sartu eta eman zure ahotsa!**
Udaletxeko areto nagusian

10:00 / 11:30 | **Yoga ikastaroa eta gosaria*** | **Ikigai zentroan**
Bi saio aukeran | Maialen Solabarrietak gidatuta

10:30 | **Gurasoentzako jolas tailerra*** | **Ispiluen gelan**
Izen-ematea 5€ | 688 66 37 44 - euskara@deba.eus

13:00 | **Kalean Kantuz** | **Udaletxeko arkupeetatik hasita**

'Erdaldun berrien kluba' bakarrizketa, umore klabeen



Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak ekoiztutako *Erdaldun berrien kluba* umorezko ikuskizuna izango da abenduaren 5ean Kultur Elkartean, 22:00etan. Bakarrizketaren egilea Idoia Etxeberria oñatiarra da eta Olatz Pagalday eskoriatzarrak

dihardu aktore lanetan. Euskararen erabileraren inguruko gogoeta bultzatu nahi du antzezlanak, betiere umore klabeen. Hala dio sinopsiak: "Irantzuren klubean gutxi dira. Lau katu. Eta sekula ez dute saririk jaso. Ez dituzte telebistan aipatzen. Ez diete elkarrizketarik egiten. Irantzuren kluba ezezaguna da. Klandestinoa. Badakizue zergatik? Irantzuren kluba 'erdaldun berrien kluba' delako, eta erdaldun berri gehienek ez dakite erdaldun berriak direnik. Izan ere, zer arraio da erdaldun berria izatea?".

Euskararen gaiari emakumearen ikuspegitik heltzen dio lanak eta adin guztietako publikoari zuzenduta dago. Formatu txikiko antzezlan da, 45 minutu ingurukoa. Sarrera guztiak aurrez agortzen ez badira, egunean bertan ere egongo dira salgai.

Herriko musikariak oholtzara, 'Euskeraz Bagera!' saio akustikoan



Iazko emanaldiak harrera beroa izan zuela ikusita, aurten bigarrenegingo da herriko musikarien kontzertu akustikoa Euskeraz Bagera programazioaren baitan, Kultur Elkartean. Abenduaren 15ean izango da saioa, 22:00etan, eta sarrera doakoa

izango da; 90 bat laguntzako tokia egongo da aretoan.

Oraindik ere baliteke azken orduan ekimenera herritar gehiago batzea, baina antolatzaileek aurreratu dute dagoeneko hamartik gora lagunak osatzen dutela agertokian ariko diren musikarien zerrenda: Miren Artetxe, Hector Aldalur, Julen Altzibar, Alex Turrillas, Goizane Aizpurua, Andoni Viñaras, Emili Sukia, Iñaki Saenz, Nahia Eguskizaga, Julen Salgado, Borja Lekube, Iker Zubizarreta eta Pablo Berrizbeitia.

Bakarka nahiz taldean, partaideek hamar minutu inguruko emanaldi laburrak egingo dituzte; estilo ezberdineko bizpahiru abesti interpretatuko ditu bakoitzak. Norberak sortutako kantak eta bertsiok izango dira entzungai euskara hutsean egingo den kontzertu akustiko herrikoian.

ABENDUAK 3 (IGANDEA)

10:00-14:00 | [Gaitu.eus: sartu eta eman zure ahotsa!](http://Gaitu.eus:sartu)
Udaletxeko areto nagusian

13:00 | [Euskararen aldeko elkarretaratzea](#) | Foruen Plazan

17:30 | [Umeentzako ipuinak](#) | [Ispiluen gelan](#)
Debako Kontalarien eskutik

19:00 | [Film emanaldia: Irati](#) | Kultur Elkartean

ABENDUAK 5 (ASTEARTEA)

22:00 | [Umorezko bakarrizketa: Erdaldun berrien kluba*](#)
Kultur Elkartean

ABENDUAK 15 (OSTIRALA)

22:00 | [Herriko musikarien kontzertu akustikoa](#)
Kultur Elkartean

ABENDUAK 16 (LARUNBATA)

10:30 | [Gurasoentzako jolas tailerra*](#) | [Ispiluen gelan](#)
Izen-ematea 5€ | 688 66 37 44 - euskara@deba.eus

11:00 | [Euskararen aldeko pilotakada](#) | [Aldats pilotalekuan](#)
Iruleak Emakume Pilotariak taldearen eskutik

OHARRAK



Izartxoak (*) duten ekimenetan beharrezkoa izango da aurrez izena ematea edo sarrera erostea. Ikastaroetan eta bisita gidatuetan plaza mugatuak izango dira, eta horietan ere aldeztetik eman behar da izena. Gainontzeko jarduerak doan egingo dira eta sarrera librea izango dute. Izen-emate formularioak, egitarau osoa eta bestelako informazioa ondoko estekan daude ikusgai: labur.eus/euskerazbagera2023.

“Publikoarekin sortzen den magiaren atzetik edo haren bila noa betiere, hor baita behar dudana erregaia”

GARI • Musikaria




Abenduaren 1ean Kultur Elkartearen izango da Iñaki Garitaonandia, Gari musikaria (Legazpi, 1963). Bakarka jardungo du agertokian. "Kantak era biluzian abestuko ditut, modu sinplean, hitzari garrantzia emanez", aurreratu du. Kontzertua Euskeraz Bagera zikloaren baitan egingo da eta sarrera guztiak agortuta daude.

Lau bat hamarkada joan dira musikaren munduan lehen urratsak egin zituenetik, baina "bizirik sentiarazten" duen horretan buru-belarri jarraitzen du Gari; ziklo batzuk itxiz, eta beste zenbait zabalduz. Askotariko proiektuetan murgilduta ibili ohi da beti musikaria eta horretan dihardu gaur egun ere. *Berriketan*-i azaldu bezala, besteak beste, abesti berriak lantzen eta Maldanbera taldearekin laster disko berria grabatzeko asmotan dabil. Deban, ordea, bakarkako saioa eskainiko du oraingoan. Azken urteotan sortutako kantek osatuko dute emanaldiko erreperitorioa, baina "baliteke" tartean pieza berriren bat ere aurkeztea.

Euskararen Egunaren harira antolatutako egitarauaren baitan ariko zara Kultur Elkartearen. Zalantzarik gabe, zure abestietako asko erreferente izan dira askorentzat. Zer sentitzen duzu, adibidez, zure kantek euskara ikasten laguntzen dutela jakitean? Eta nola hartzen duzu ardura hori?

Nire burua ez dut inoiz testuinguru horretan jartzen. Behin kanta publikoaren aurrean aurkeztu ondoren, bere ibilbidea hasten du, bizitza propioa hartzen du. Kantak ez dira ezer beste aldean ez badute entzuleria bat; horretarako sortzen dira, horren beharra dute.





“Bizitzaren ibilbidean aurkitu izan dudana da, superbibentziaz aritzen naizela uste dut”

“Esan dezaket eboluzioa egon badagoela, egon nahi dudan lekuan nagoela musikari gisa”

Aurrez ere egona zara Deban. Besteak beste, Animadeba zinema jaialdiaren harira abestu izan duzu bertan. Zer nolako lotura duzu herriarekin? Jakin badakigu elkarlanean aritu izan zarela, adibidez, Aitor Oñederrarekin...

Bai, hala da, Aitor Oñederrarekin hainbat proiektu gauzatu ditugu elkarlanean. Artista handia izanda, Aitorrek lotura estua du bere herriarekin eta horren adibide da Animadeba jaialdiaren antolaketa. Berari esker daukat nik harremana Debako herriarekin, Deba berarekin lotzen baitut nahitaez.

Ziper taldean abiatu zenuen musika ibilbidea, 1979an. Gero Hertzainak taldean sartu zinen eta, bertan hamarkada batez jardun ondoren, bakarkako bideari ekin zenion beste hainbat urtez. Ondoren etorri ziren Maldanbera taldearekin aritzea edota iaz Hertzainak taldearekin egindako agur kontzertuak... Konta iezaguzu, zertan zabilta orain? Zer duzu esku artean?

Debarako prestatzen ari naizen kanten zerrendan azkenengo urte hauetan idatzitako kantak izango dira, eta baliteke kanta berriren bat ere aurkeztea. Esan duzun bezala, beti nabil musika proiekturen batean murgilduta, eta sarritan batean baino gehiagotan. Hala da orain ere...

Etorkizun hurbilera begira, proiektu edo erronka zehatzik bai?

Lanean gabiltza, kanta berriak lantzen ari naiz dagoeneko Maldanbera taldearekin eta asmoa disko berria grabatzea da, datorren urtarrilean, Elkar diskoetxearen eskutik.

2022ko abenduan eta 2023ko urtarrilean Hertzainak taldeak bere ibilbidea borobildu zuen Bilbon eta Gasteizen, agur esateko emandako kontzertuekin. Ziklo hori guztiz itxita al dago?

Nire konpromisoa etorkizunarekin lotuta dago, egunerokoan oinarritua. Aipatzen duzun zikloa amaitua dago, bai, eta ezin hobeto amaitua.

Bakarka batzuetan, taldean bestetan... zer eskaintzen dizu zuri bakoitzak? Edo beste modu batean galdetuta, zer garrantzi dute taldeek zure ibilbidean eta zer garrantzi publikoaren aurrean bakarka aritzeak?

Proposamen erabat desberdinak dira; batean, taldearen babesarekin agertzen naiz, eta, bestean, biluz-biluzik. Biak ditut oso gustukoak, aberasgarriak direlako biak ere, baina oso modu desberdinetan. Taldearekin saioa musikalki biribilagoa izaten da, indarrez betea... eta bakarka ari naizenean, berriz,



zirrarak azaleratzen dira, publikoarekin konexioan sakonduz. Azkenaldi honetan oso eroso sentitzen naiz bakarkako formatuarekin, inoiz baino gusturago; zirrarak formatu horretan partekatzeak betetzen nau.

Era batean zein bestean, musika beti bidelagun? Publikoarekin sortzen den magiaren atzetik edo haren bila noa betiere, hor baita behar dudana erregaia.

Zer eman dizu zuri musikak? Eta zer kendu?

Galdera honi erantzuteak denbora gehiegi emango digu; utz dezagun horrela, bizirik sentiarazten nauela esango nizuke.

Emozioei buruz hitz egiten duzu askotan zure abestietan, ezta? Ezinbestekoa da zuretzat?

Nire bizitzan, bizitza guztietan bezala, une argitsuak izan dira eta une zakar eta ilunak ere bai. Erori eta altxa, proba eta hutsegite, irabazi eta galdu... Bizitzaren ibilbidean aurkitu izan dudana da, superbibentziaz aritzen naizela uste dut.

Hamaika proiektutan ibili zara hamarkada hauetan. Zer nolako eboluzioa izan du Garik artista edo musikari gisa?

Ez dakit zehazki zer nolako eboluzioa izan dudana, baina esan dezaket eboluzioa egon badagoela, egon nahi dudana lekuan nagoela musikari gisa. Inoiz

baino gusturago sentitzen naiz neure buruarekin eta neure musikarekin, nirekin lan egiten dutenekin.

Zein puntutan ikusten duzu zure burua orain musikalki?

Bueno, nire adinarekin... heldutasunean ziurrenik! Eta, aldi berean, aurrera egiteko gogoz eta ikasten eta hobetzen jarraitzeko behararekin, nire eboluzioan beste pauso bat emanez.

Eta nola ikusten duzu musikagintzaren egoera gaur egun Euskal Herrian?

Belaunaldi-arrakala dugu aurre-aurrean, ezer berririk, beti gertatu izan ohi dena eta, gainera... hala behar du!

“Azkenaldi honetan oso eroso sentitzen naiz bakarkako formatuarekin, inoiz baino gusturago; zirrarak formatu horretan partekatzeak betetzen nau”

Azaroa / Abendua

AZA. 24 - ABE. 16

EUSKERAZ BAGERA

Egitarau osoa ale honetako 31.-32. orrialdeetan.

AZA. 25 (LARUNBATA)

KONTZERTUA

12:30 Santa Zezilia. Musika Banda. Elizako klaustroa.

A25-EKO MOBILIZAZIOAK

Informazioa 9. orrialdean.

AZA. 26 (IGANDEA)

ZINEMA

16:30 'Kranston ikastetxea'. Zubi Guraso Elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.

19:00 'The quiet girl'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

AZA. 29 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Arrain hezur bat eztarrian' (Olatz Mitxelena). Ostolaza Udal Liburutegia.

AZA. 30 (OSTEGUNA)

GREBA FEMINISTA OROKORRA

Informazioa 9. orrialdean.

ABE. 1 (OSTIRALA)

BELDUR BARIK

19:30 Sari banaketa ekitaldia. Ispiluen gela.

URTEKO BATZARRA

17:30 Zurrunbilo Ur Kirol Elkarte. Kultur Elkarte.

ABE. 3 (IGANDEA)

EKITALDIA

11:30 Odol Emaila Elkarte. Udaletxea.

ABE. 4 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

ABE. 8 (OSTIRALA)

KALE ANTZERKIA

19:00 'Legea gu gara'. (Barsanti Antzerki Taldea). Foruen Plaza.

ABE. 9 (LARUNBATA)

BISITA GIDATUA

16:00 'Gotikoaren altxorra Deban'. Turismo bulegotik.

ORGANO KONTZERTUA

20:00 Esteban Elizondo. Debako eliza.

ABE. 10 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'La araña sagrada'. Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

BISITA GIDATUA

10:00 'Flysch beltza'. Turismo bulegotik.

ABE. 12 (ASTEARTEA)

BILERA IREKIA

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko batzarra. Zuhatzaren bulegoa.

ABE. 14 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

18:30 'Es Navidad y tenemos una(s) silla(s) vacía(s)'. Eider Otxoa. Kultur Elkarte.



ABE. 15 (OSTIRALA)

TAILERRA

18:00 'Barreterapia'. Itziariko Burugorri.

ABE. 16 (LARUNBATA)

GABONETAKO AZOKA

09:30 Herriko artisauen eta ekoizleen postuak. Simon Berasaluze plaza.

IDI-PROBAK

21:00 Gipuzkoako Kintopeko Txapelketaren finala. Euskal Jolas frontoia.

ABE. 17 (IGANDEA)

ZINEMA

16:30 'The snow queen'. Zubi Guraso Elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.

ABE. 18 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

ABE. 21 (OSTEGUNA)

GABON KONTZERTUA

17:00 Musika eskolako ikasleen emanaldia. Debako eliza.

LEHIAKETA

Gabonetako balkoi, leiho eta fatxaden lehiaketa

Izen-ematea: abenduaren 20ra arte, turismo bulegoan (turismoa@deba.eus).



ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO Azaroak 27, 28, 29, 30 eta abenduak 15, 16, 17.

ZALDUEGI Abenduak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI 669 26 22 01

BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI

Azaroak 25 / Abenduak 2

BURGOA ZUAZO

Abenduak 9 eta 16

Jarrai gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkarte



HURRENGO HITZORDUAK



berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan abenduaren 15a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Lanbide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04




Gestilan
asesores aholkulariak


DEBA | Bulego berria
Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

 asesoriagestilan
  gestilan.es
  gestilan@gestilan.es



Uzuri
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92




Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.



EZKER-ESKUIN

- 5 Debako auzoa.
- 6 Debako kale-katuen babeserako sortutako elkarte.
- 8 Itziarko kobazuloa.
- 9 Jose Mari Irusta erail zuten kontzentrazio esparruaren izena.
- 10 Lasturko pilotalekua.
- 12 Ameriketara irabazitako dirua kultura sustatzeko baliatu zuen enpresari debarra.

GOITIK BEHERA

- 1 Amatasuna eskulturaren egilea.
- 2 Alaitz Eskuderoren musika taldea.
- 3 Udazkeneko kanpaina 10 urte bete-bete goiburuan abiatu duen herri ekimena.
- 4 Saskibaloia Kluba.
- 7 Argazkiko zuhaitza.
- 11 Deba, Mutriku eta Mendaro artean dagoen mendilerroa.



EBAZPENA
 Ezker-eskuin: 5 Artzabal | 6 Xapi | 8 Aixa | 9 Melk | 10 Presaola | 12 Ostolaza
 Goitik behera: 1 Oteiza | 2 Neomak | 3 Errigora | 4 Debasket | 7 Tamariza | 11 Arno

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresioak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba
T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE

SCHOOL OF ENGLISH

Nagusientzako
ingelesezko klaseak

Matrikula:
abendua 20ra arte

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

janire & maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

A. Esnaola P. Echeverria

Hortz klinika Clinica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@pjadent

EUSKERAZ BAGERA

AZAROAK 24 ostirala

18:00 | **Umeentzako ikuskizuna: Niala magoa** Gaztetxean Ondoren, **txokolatada** Debako Gazte Asanbladaren eskutik

AZAROAK 25 larunbata

10:30 | **Gurasoentzako jolas tailerra** Ispiluen gelan
Izen-ematea: 5€ | ☎ 688 66 37 44 - euskara@deba.eus
Tailerrak beste bi saio izango ditu (abenduaeren 2an eta 16an)

AZAROAK 26 igandea

10:30 | **Irteera gidatua Osioko basora** Diego Mendozak gidatuta
Izen-ematea doan: ☎ 695 78 36 56 | Osioko parketik

AZAROAK 29 asteazkena

18:00 | **Mintzodromoa: giro gozoan euskaraz hitz egiteko gunea**
Izen-ematea doan: ☎ 632 04 33 22 - Azaroaren 28ra arte
Herritar orori zuzendua, hizkuntza maila edozein dela ere
Ispiluen gelan | Luntxa egongo da

ABENDUAK 1 ostirala

10:30 | **Literatur lehiaketako sari banaketa** Mendata institutuan

17:00 | **Euskaraz blai jolasten** Kolore Anitzen ekimenez
HH eta LHko haurrentzat | Udaletxeko arkupeetan

20:00 | **Kontzertua: Gari** Kultur Elkartearen
Sarrera 12€ / Zuhatzako bazkideek 10€
Salmenta: Azaroaren 21ean (18:00-20:00), Kultur Elkartearen

ABENDUAK 2 larunbata

10:00-14:00 | **Gaitu.eus: sartu eta eman zure ahotsa!**
Batu ditzagun gure ahotsak teknologiari euskaraz irakasteko!
Udaletxeko areto nagusian
Abenduaeren 3an ere grabaketa saioa egingo da

10:00 | **Yoga ikastaroa eta gosaria** Maialen Solabarrietak gidatuta
Izen-ematea doan: labur.eus/euskerazbagera2023 | Ikigai zentroan

ABENDUAK 3 igandea | Euskararen Nazioarteko Eguna

13:00 | **Euskararen aldeko elkarretaratzea** Foruen Plazan

17:30 | **Umeentzako ipuinak** Debako Kontalariaren eskutik
Agirre Jauregiko Ispiluen gelan

19:00 | **Film emanaldia: Irati** Kultur Elkartearen

ABENDUAK 5 asteartea

22:00 | **Umorezko ikuskizuna: Erdaldun berrien kluba** Kultur Elkartearen
Sarrera 5€ / Zuhatzako bazkideek 3€
Salmenta: Azaroaren 21ean (18:00-20:00), Kultur Elkartearen

ABENDUAK 15 ostirala

22:00 | **Herriko musikariaren kontzertu akustikoa: Euskeraz bagera!**
Kultur Elkartearen | Doan

ABENDUAK 16 larunbata

11:00 | **Euskararen aldeko pilotakada** Aldats pilotalekuan